

MOZIOA.

Udal honek jakin du 2006rako aurrekontu proiektuan Nafarroako euskaltegi eta gau-eskolei diruz laguntzeko kontusailean 2004an baino askoz diru gutxiago proposatzen duela Nafarroako Gobernuak. 2005ean murrizketa ikaragarria izan zen partida honetan, %65,98koa, hain zuzen ere. Eta 2006rako proposamenean murrizketa hain handia ez bada ere, 2004an baino %57 guxiago jasoko dugu.

1. Honen aurrean, Iruñeko Udalak bere kezka adierazi nahi du, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak gutxitze horrek IKako eta AEKko euskaltegien bideragarritasun ekonomia kolokan jarri baitu. Eta era berean, euskaltegi hauek Iruñeko helduen euskalduntze-alfabetatzean egiten duten lan bikaina.

2. Udal honek dei egiten die Foru Parlamentuan ordezkaturiko alderdi politikoei Nafarroako IKak eta AEKk helarazi dieten 2006ko aurrekontuen gaineko proposamena aintzat hartu eta aurrera ateratzeko ahaleginak egin ditzaten, euskara ikasi nahi duen herritarrak horretarako duen eskubidea herrian bertan betetzeko bidea izan dezan aurrerantzean ere. Hortaz, mozio hau Foru Parlamentuko alderdi politiko guztiei igortzea erabakitzen du Iruñeko Udalak, eta baita Hezkuntza kontseilari Luis Campoy jaunari ere.

3. Azkenik, ondorengo hedabide hauetan mozio honen berri ematea erabakitzen du Udal honek: Diario de Navarra, Diario de Noticias, Berria eta Garan. Horretarako ordainduriko iragarkiak erabiliko ditu Udal honek, mozio hau onartu eta hurrengo igandean. Eta egoki ikusten duen Iruñeko gainerako hedabideetan ere zabalduko du mozio honen berri.

Iruñean, 2005eko

azaroaren 2an.

